

# Altxor uharterea

Mahai-jolas honetan aritzeko behar dituzu: dado bat, bi fitxa eta jolaskide bat. Bi lagun baino gehiago baldin bazarete, bi taldetan banatu.

## Nola jolastu

Jolaskide edo talde bakoitzak ibilbide bat aukeratu du. Gero, dadoa botatzen zein hasiko den erabaki behar da.

Dadoaren aginduari jarraituz, mugitu fitxa. Tokian tokiko laukian aurkitzen den ikurrari egin behar zaio kasu.

Altxorra dagoen zenbakira heltzen den lehenak irabaziko du partida. Oka-jolasaren antzean arituko gara beraz.

## Ikurrak



Basoan galdu zara. Hiru pauso atzera.



Amildegia. Hiru pauso atzera.



Ekaitzak ez dizu aurrera egiten uzten. Bi pauso atzera.



Sua! Sua! Hiru pauso atzera.



Marrazo ugari dago itsaso honetan. Hasi berriro.



Bide onetik zoaz. Eman pauso bat aurrera.



Zulo batean erori zara. Zoaz bigarren laukira.



Lortu duzu!



Ura aurkitu duzu. Eman bi pauso aurrera.



Iparrorratzak lagundu egiten dizu. Bi pauso aurrera.



Basapiztiak ikusi dituzu. Zain egongo zara arriskua pasa arte. Txanda-pasa.



Uharteko indigenek ez dizute pasatzen utzi nahi. Bi pauso atzera.



Txalupatik txalupara egin salto. Beste txaluparik ez badago, bertan gelditu eta eman txanda hurrengoari.

